

**6/1988 Foru Araua, ekainaren 30ekoa, borondatezko
gizarte aurrikuspeneko entitateen erregimen fiskalari
buruzkoa
(BAO Uztailaren 16koa)**

Bizkaiko Batzar Nagusiek, 1988ko ekainaren 29ko Osoko Bilkura, 6/88 Foru Araua onetsi dute, borondatezko gizarte aurrikuspeneko entitateen erregimen fiskalari buruzkoa, eta nik aldarrikatu egin dut eta argitaratu dadila agindu dut. Horren berri eman dut, foru arau hori aplikatu behar zaien herritar guztiak, norbanako nahiz agintari, hura bete eta betearazi dezaten.

Bilbon, 1988ko uztailaren 7an.

Diputatu Nagusia,

JOSE ALBERTO PRADERA JAUREGI

HITZAURREA

Euskal Herriko Autonomia-Estatutoak bere 10.23garren atalean, Autonomia-Elkarteari, Seguru Sozialesan sartu barik dagozan Mutualitateen arloan, bakarreango agintepidea emoten dautso.

Eusko Legebiltzarrak, bere agintepideetaz baliatuz, Borondatezko Gizarte-Aurrezaintzarako Alkarteei buruzko urriaren 27ko 1983/25garren Legez, Euskal Herriaren zernolakoei egokitutako Erakunde horreentzat, euren egiten jakezan ekarketantzat eta ordaindu daiezan emankizunentzat ezargarri dan zergabidetza finkatzea, arazo hori Batzar Nagusiei joakena dala.

1. artikulua. Erabiltze-eremua.

...

2. artikulua. Lurralde-Mugapenak.

...

3. artikulua. Muga objektiboak

...

4. artikulua. Borondatezko Gizarte-Aurrezaintzarako Erakunde Zergabidetza.

...

5. artikulua. Bazkide babes-emoleen eta berenezko edo agizkoen ekarketen zergabidetza.

...

6. artikulua. Betetako emankizunen zergabidetza

...

ALDIBATERAKO ERABAKIAK

Lehenengoa.

Foru-Arau hau indarrean jarri baino lehenago sortarazi ziraneko domuen pentzutan ordaindu daitezkan bizi-bitarteko aldian-aldiango emankizunak, bizi-bitarteko irabazitza joko dira.

Nolabait Arau hau indarrean jarri baino lehen sortarazi ziran baltzuei joakezanak, indarrean jarri baino lehenago sortarazitako domuaren heinengo zatiari jagokozanetan, bizibitarteko irabaziei joaken zergabidetzapekoak izango dira.

Bigarrena.

1. Foru-Arau hau indarrean jarri ostean bazkide-babesleek emondako diru-kopuruetan, beti ere argi dagoanean 1986.eko irailaren 17an baino lehenagoko itunetan oinarritzen dirala, ordainketok egiten diran urtekitaldi horretako ezarpenean beheragarritza joko dira, berenezko edo agizko bazkideenak ez dirala zergapekotza hartuko.
2. Aurrezaintza-alkarteentzako horniketak eta Borondatezko Gizarte-Aurrezaintzarako Alkarteen Araudia onartzen dauan otsailaren 20ko 1984/87. Dekretuan 5. ataleko 1 eta 2 zenbakietan araupetutakoen antzeko emankizunetarako bideratutako horniketak, 1988.eko abenduaren 31a baino lehenago langileekaz hatutako betebeharretan oinarritutakoak diranak eta gastu beheragarritza ez dirala hartu, kontu-gastu lez hartu izan badira ere, aitatutako dataren osteko lehengo ekitaldian beheragarritza joko dira, beti ere Borondatezko Gizarte-Aurrezaintzarako Alkarteen batera atxikitzen badira, langileei zergapekotasunik eskatu barik.

AZKEN ERABAKIA

...